

NIGERIA

Biafra askatzeko mugimendua indartu dute klima aldaketak eta errepresioak

 POLITIKA / Stephanie Findlay (Afp)

Fula etniako artzai-
nek egunsentian
egin zuten eraso,
goizeko otoitzaldien
ondoren. Nimbo he-
rrikoek ezin zuten
sinetsi ere egin gertatzen ari zi-
tzaiena. Namea eta papaia pro-
dutu nagusiak diren herria oso
lasaia da normalean. Nigeriako
hego-ekialdeko Nsukka hiritik
gertu dago.

Fula etniako artzainak noma-
dak eta musulmanak dira, eta
azken urteotan horien aurka bo-
rrokan aritu diren nekazariak,
kristauak eta sedentarioak. Ar-
tzaintza eskubideak egoten dira
borroka horien atzean, baina
hori Nigeriako erdialdean gerta-
tzen zen orain arte, ez hego-
ekialdeko eskualde honetan,
Nsukka hiritik hain gertu.

FUSILAK ETA AIHOTZAK

Nimboko herritarrek hogeiren
bat gazte inguruko mendixketa-
tik jaisten ikusi zituztenean, be-
rehala ulertu zuten lasai gera-
tzerik ez zegoela. Palmondoen
artetik beren AK47 fusilekin tiro
eginez iritsi ziren. Aihotzak zi-
tuzten eskuetan. «Bazter guztie-
tatik egiten ziguten tiro, ez ge-
nekien nola babestu. Herritar
asko hil zituzten», esplikatu di-
gu Kingsley Oneyebuchie 31 ur-
teko funtzionarioak.

«Nire anaiari tiro egin zioten
eta ondoren nire aita labana ba-
tekin zauritu zuten», dio Nsuk-
ka hiriko erietxean, soina era-
kusten duela. «Ni zauritzeko,
berriz, aihotza erabili zutelako-
an nago. Hilda nengoela pentsa-
tuko zuten», erantsi du, buruan
duen hoge zentimetroko eba-
kiondoa erakutsiz. Bizitza osora-
ko orbaina.

Apirilaren 25eko erasoak ha-
mar hildako eragin zituen. Beste
herritar asko zaurituta utzi zi-
tuzten, Oneyebuchie bezalaxe.
Azken hilabeteotan behin baino
gehiagotan iritsi izan dira Nige-
riako hego-ekialdera. Erasorik
tragikoena hemendik 200en bat
kilometrora egin zuten, Benue
estatuko Agatu herrian, otsaile-
an: ehunka hildako, gehienak
nekazari kristauak.

Odol isurtze horiek ez dira be-
rriak Nigeriako historian. He-

Nigeriako fula eta igbo etnien arteko borroka
larriagotzen ari da klima aldaketa. Herrialdearen
erdialdean izaten ziren gatazkak hego-ekialdera ere iritsi
dira orain, basamortua aurrera egiten ari delako.
Horregatik igbo askok Biafraren independentziaren
aldeko mugimenduarekin bat egin dute azken boladan.

rrialdearen gertaera ilunenak
ekartzen dituzte gogora. Izan
ere, hego-ekialdean nagusi di-
ren igbo etniako kristauak, ipa-
rralde musulmanetik etorritako
fula eta hausa etnietako eraso-
tzaileen jomuga bihurtu izan di-
ra askotan.

Etnien arteko borrokok dagoe-
neko bi estatu-kolpe eta gerra zi-
bil bat eragin dituzte. Gerra hasi
zen 1967an, igbo etniakoek Ni-

geria utzi eta hego-ekialdeko es-
kualdeetan Biafrako Errepublika
sortzea erabaki zutenean. Hiru
urteko gerra hartan milioi bat
igbo hil ziren, gosez asko eta as-
ko, Gobernuak ezarri zien bloke-
oaren eraginez.

Mende erdia pasa denean, ig-
bo etniako herritar askoren iri-
tziz estatu independente bat
eratzeko da geratzen zaien irten-
bide bakarra, fula etniakoek era-

IPOB Biafrako Jatorrizko
Herritarak izeneko
taldearen txartel bat
erakusten du herritar batek,
errepresioak eragindako
elbarrien aurrean.
Stefan HEUNIS | AFP

soetatik babesteko modurik era-
ginkorrena delakoan.

«Ezinbestekoa da gauzak on-
do argitzea, guztiok jakitea han
fula etniakoak bizi direla, eta,
hemen, igbo herrikoak –adierazi
du Oneyebuchiek–. Gure lurral-
detik horiek alde egitea behar
dugu, aske izan ahal izateko».

Munduko Terrorismoaren In-
dizearen arabera, fula etniako
artzainek 1.229 pertsona hil zi-
tuzten 2014an, hau da, planeta
osoko laugarren «talde terroris-
tarik hilgarriena» izan ziren
orain bi urte.

BORROKA-EREMUA MUGITU DA

Borroka eta eraso gehienak Ni-
geriako erdialdean gertatu zi-
ren, musulmanek eta kristauak
bat egiten duten eremu zabale-
an. Azken bolada honetan fula
etnien erasoak eta mugi-
menduak hego-ekialdeko igbo-
engana ere iritsi dira, eta feno-
mena Biafra aske baten
aldekoen argudiorik indartsue-



AK47 fusilekin tiro eginez iritsi ziren. Aihotzak zituzten. «Bazter guztietatik egiten ziguten tiro, ez genekien nola babestu. Herritar asko hil zituzten», esplikatu du funtzionarioak

«Ni zauritzeko aihotza erabili zutelakoan nago. Hilda nengoela pentsatuko zuten», erantsi du, buruan duen hoge zentimetroko ebakiondoa erakutsiz. Bizitza osorako orbaina

na bihurtu da, eskualdeok Estatu Federalaren babesik gabe daudela frogatzen duelakoan.

Muhammadu Buhari Nigeriako presidentea bera iparraldeko fula etniakoa da. Berehala gaitzetsi zituen artzainen erasoak. Azkenean, orain hilabete, Poliziari eta Armadari agindu zien sarraskiari amaiera emateko beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko.

Wole Soyinka Literatura Nobel saridunak berak Exekutiboak estatutu berri zuen: «Gobernuak seriean egindako sarraski izugarriok inolaz ere onartuko ez dituen politika sendo bat ezartzea espero dut».

IPOB Biafrako Jatorrizko Herritarak izeneko taldeak urte asko daramatza estatu independente baten aldeko borrokan. Iazko urrian Nnamdi Kanu taldeko burua atxilotu zutenean, igbo etniako milaka herritar irten ziren kalera protesta egitera, eta, bide batez, baztertuta eta oso ahul zegoen mugimendua indartu egin zen.

BIGARREN GENOZIDIOA?

Fula artzainen erasoak direla-eta, IPOBekoek adierazi dute «Buhari presidentek Biafran bigarren genozidio bat izan dadin bidea erraztu» duela.

Nimboko herritarren diskurtsoa ez da hain gogorra, ez dute genozidio hitza aipatu ere egiten, baina erabat kezkatuta daudela begi bistakoa da.

Herria huts-hutsik dago eta buztinez eta lastoz eraikitako etxeetako ateetan sarraila berriak jarri dituzte. «Askotan eskatu diogu laguntza Gobernuari, baina ez digu jaramonik egiten», adierazi du Thaddeus Okenwa 65 urteko nekazariak. Juka landatzen duen gizonak garbi dauka alternatiba: independentzia. «Independentzia ematen badigute, primeran. Ez dugu gerrarik nahi, baina fula etniakoen erasoek horretara behartuko gaituzte. Ezin dugu atzerritar sentitu geure etxean».

Nigeriako agintariek egurra eman diote Biafra askatzearen aldeko mugimenduari eta horrexek ere indartu egin ditu independentziaren aldekoak.



Kingsley Oneyebuchiek buruan duen zauria. AFP



Oneyebuchie, Nsukkako erietxean. AFP

Chukwu Ebuka Moses gaztegia da 1967an Nigeriako hegoekialdea guztiz suntsitu zuen gerra gogoratzeko. Gatazka hartan milioi bat hildako izan ziren. Gainera, han amaitu ziren garaiko igbo etniakoen Biafra independente bat eratzeko ametsak. 19 urteko ikaslea jaio gabe zegoen 1967an. Hala ere, gerra hartako beterano bat sentitzeko modua du orain, Aba Abia estatuko hiriburuan joan den urtarilaren 18an Biafraren aldeko manifestazio batean esku hartzen ari zela tiro egin ziotenetik.

ERREPRESIOAREN ERAGINA

Ahulegi dago oraindik eta lagun batzuek ekarri dute kazetariarengana, plastikozko aulki batean jarrita. Etxola baten itzalpean jarri dute. «Protestaldi batean geunden, kantari. Batean poliziak etorri eta guri erasoka hasi ziren. Negar gasa jaurti ziguten, tiro egiteaz gain», esplikatu du.

Soinean dituen galtza motzak jaso eta eskuin izterrean duen txanpon baten neurriko zauria erakusten digu. X izpien bitartez ikus daiteke izterrezurra hiru puntutan hautsita duela.

«Erasoa izan zenetik arnasa hartzeko garaian arazoak izaten ditut. Nire gorputza erabat ahulduta dago», esan du, estutasuna adierazten duen begiradarekin.

Bere adineko gazte gehienak bezala, Chukwu Ebuka Moses P-Square Nigeriako musika taldearen jarraitzaile da. Gainera, Londresko Chelsea futbol taldearen zale sutsu ere bada.

Zaurituta utzi zuen manifestazio hartan esku hartu baino hilabete lehenago egin zuen bat Biafraren aldeko mugimendua-ekin. Berak lanpostu on bat izatearekin egiten du amets, baina bera bizi den lekuko gazteentzat ez da aukera handirik izaten. Gaur egun ez du beldurrik eta oso garbi dauka: «Biafrak existitu egin behar du». Indar handiz bota du esaldia, elkarrizketa entzuten ari diren pertsona helduen oniritzia jasotzeko.

IPOB Biafrako Jatorrizko Herritarak mugimenduak independentzia exijitzen du. Aske nahi dituen lurretan igbo etnia-



koak dira nagusi, hau da, Nigeriako hiru talde etniko nagusietako bateko kideak. Igboek salatzen dute Nigeriako Gobernuak bazterrean dauzkala azpiegiturei, osasunari eta hezkuntzari dagokionez.

Iazko urrian Nnamdi Kanu IPOBeko buru eta Biafra Irratiko zuzendaria atxilotu egin zuten eta behin-behineko espetxealdia ezarri zioten. Nigeriako hegoekialdean protestaldi ugari egin ziren eta Biafraren independentziaren aldeko oihuak inoiz baino ozenago entzun ziren. Onkere Kingdom Nnamdi abokatuak jakinarazi duenez, 50 herritar hil ziren istilu haien eraginez. Beste 100en bat lagun zaurituta eraman zituzten eta segurtasun indarrek 200en bat atxilotu zituzten. Buhari presidenteak krimen ikaragarriak leporatu zizkion Kanuri eta Nigeriaren osotasuna mehatxatzen duen mobilizaziorik ez duela onartuko esan zuen.

Baina Kanuren aurkako akusazioek eta manifestariei egurra emateak ez zuten agintariek



nahi zutena lortu. Milaka lagun-
nek bat egin zuten IPOB mugimenduarekin, urte askotan gertatu ez zena. Azarotik otsailera bitartean egindako hiru manifestaziotan zauritutako herritarrek esan digute segurtasun indarrek negar gasa erabili zutela, manifestariei tiro egiteaz gain. «Bazter guztietara egiten zuten tiro», esan du Paulinus Uwaga 50 urteko igeltseroak. Azaroaren 10ean oin batean zauritu zuten Port Harcourt hirian egindako manifestazio batean esku hartzen ari zela.

MEDIKUEN BELDURRA

Biafraren aldekoek salatu dute protestaldietan hildako manifestariak hobi komunetan sartzen zituztela. Beste manifestari batzuk gauez desagerrarazi izan dituzte. Horixe egin zuten Eme-ka Uzomaren lehengusuarekin. Motxilan Biafrako bandera bat antzeman zioten eta une honetan etxean ez dakite bizirik ote dagoen ala hil egin duten.

Chibueze Chukwu otsailean zauritu zuten: tiro bat oinean.

Erietxera eraman zuten, baina bertan argi eta garbi esan zioten Chukwuri ez zutela tratatuko, Poliziaren eta Armadaren beldur zirelako. Bala zauririk ez tratatzea erabaki zutela esan zioten. Gauza bera gertatu zitzaion beste erietxe batean ere. Azkenean IPOB mugimenduak berak duen zentro batera eraman zutenean eman zioten beharrezkoa zuen tratamendua. «Independentziaren aldeko ekintzaile bat zarela iruditzen bazaie, ez duzu hurrengo eguneko argirik ikusiko. Beldurrez akabatzen bizi gara».

Urtarrilean zauritu zuten Chukwu Ebuka Moses 19 urteko gaztea, Aba hirian egindako manifestazio batean.

Stefan HEUNIS | AFP

Soinean dituen galtza motzak jaso eta eskuin izterrean duen txanpon baten neurriko zauria erakusten digu. X izpien bitartez ikus daiteke izterrezurra hiru puntutan hautsita duela

Nnamdi Kanu IPOBeko buru eta Biafra Irratiko zuzendaria atxilotu egin zuten. Protestaldi ugari egin ziren eta independentziaren aldeko oihuak inoiz baino ozenago entzun ziren

PETROLIOA AURKITU IZANAK ERAGIN ZUEN BIAFRAKO ERREPUBLIKAREN SORRERA

Biafra, ofizialki Biafrako Errepublika, Nigeriako hegoaldean zegoen estatu sezesionista izan zen. Bertan igbo etniakoak ziren nagusi. 1967ko maiatzaren 30etik 1970eko urtarrilaren 15era iraun zuen esperimentuak. Igbo herriak inguruko beste herriei arazo ekonomiko, etniko, kultural eta erlijiosoak zituen, independentzia aldarrikatu zuen. Aldarrikapen horrek Nigeriako Gerra Zibila edo Nigeriar-Biafrar Gerra eragin zuen. Gabon, Haiti, Boli Kosta, Tanzania eta Zambiak baino ez zuten ofizialki Estatu berria ezagutu. Hala ere Israel, Estatu frantsesa, Portugal, Rhodesia, Hegoafrika eta Vatikanoren laguntza ere jaso zuen.

Garai hartako hedabideek gatazkak eragindako gosetea nabarmendu zuten. Igbo herrikoek genozidioa salatu zuten eta bertan zegoen hondamendia ikusteko aukera izan zuten Bernard Kouchner eta frantses Estatuko beste mediku batzuek; egoerak erabat astinduta, MSF Mugarik Gabeko Medikuek izeneko gobernu kanpoko erakundea sortu zuten 1971n.

Nigeriak 1960an eskuratu zuen independentzia. Hiru eremu handiren federazio moduan sortu zen: hegoaldeko populazioaren %70 igbo etniakoak ziren; iparraldeko %65, fula herrikoak; eta hego-mendebaldeko biztanleriaren %75, jorubak.

Azken hauteskundeetan iruzurra egin zela uste zuten igbo etniakoek. Gainera, ustelkeriak eta krisi ekonomikoak beren egoera gaiztotu egin zuten eta Armadako ofizial igbo batzuek estatu kolpea jo zuten 1966ko urtarrilean. Kolpistak espetxeratu ondoren, diktadura militar bat ezarri zuen Johnson Aguiyi-Ironsi jeneralak (igboa bera, eta katolikoa). Baina egoera berria ere ez zen gainerako etnien gustuko, eta beste kolpe bat izan zen urte bereko uztaillean. Testuinguru horretan, irailean iparralde musulmanean bizi ziren 30.000 igbo inguru hil zituzten.

Niger ibaiaren deltan petrolio aurkitu izanak hegoaldeko probintziek eremu hori bereganatzea eragin zuen. Hala ere, igbo etniakoak ez zeuden ados, beti baztertuta sentitzearen eraginez, petrolioak emango zituen etekin guztiak iparraldera eta hego-mendebaldera joango zirelakoan. Faktore horiek lagundu zuten igbo herrikoek Biafraren askatasunaren aldeko erabakia har zezaten. Hamalau milioi biztanle inguru zituen Biafrak, eta 76.400 kilometro koadroko azalera.

